

HERRIAREN GOBERNU BATZORDEAK 2024KO MAIATZAREN 13an HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

Azpeitian, 2024ko maiatzaren 13an, Udaletxeko bilkura-areto nagusian elkartu da Herriaren Gobernu Batzordea lehenengo deialdian eta ohizko bilkuran, aztergai-zerrendako gaiak eztabaidatu eta erabakitzeko. Nagore Alkorta Elorza alkatea buru dela, eta batzarra osatzen duten zinegotzi denak bertan direla.

Honako akordioak hartu dira:

- 1.- Herriaren Gobernu Batzordeak 2023ko apirilaren 16an egindako bilkuraren akta onartu da.
- 2.- Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 1 Alde Zaharra H.E. eremurako Hiri Antolaketarako Plan Bereziari HASIERAKO onarpena eman zaio.
- 3.- AZPEITIKO HAPO-REN 31.TRUKUTXO H.E.RAKO URBANIZATZE JARDUKETA PROGRAMAREN HASIERAKO ONARPENA. Gai hau hurrengo bileran aztertzea erabaki da, kontuan izanik beharrezkoa dela Udalak jasoko duen %15eko eraginkortasunaren zenbait elementu definitzea.
- 4.- AZPEITIKO HAPO-REN 1 ALDE ZAHARRA H.E.RAKO PLAN BEREZIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA (2024PLAN0010). Gai hau hurrengo bileran aztertzea erabaki da, kontuan izanik beharrezkoa dela Udalak jasoko duen %15eko eraginkortasunaren zenbait elementu definitzea.
- 5.- Azpeitiko Garmendipe kalea, 8an diskoteka bat jartzeko jarduera onartzeko eskaera onartu da, beti ere espedientearen baitan eman diren txostenak jasotako baldintzen arabera.

Azpeitia, 2024ko maiatzaren 25a
UDALAREN IDAZKARIA,
Olatz Eizaguirre Orbegozo